# Haurreskolak Partzuergoan

## Baremazioa eta izen ematea

2025-11-17tik 2025-11-30era
(biak barne)

**2025eko azaroa**

etxera

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

# EGUTEGIA: noiztik noiz arte?

2025ko azaroaren 17tik azaroaren 30ra, bi datak barne

# Nork hartu dezake partu?

2025ko azaroaren 30a baino lehen izena emateko baldintzak nahiz titulu eta hizkuntza eskakizunaren baldintzak bete eta egiaztatuta dituen pertsonak, izena eman dezake.

- Izena emateaz gain, ordezkoen zerrendan dauden langileek, zonalde eta jarduna aldatu nahi duenak.
- Kanpoko lan esperientzia sartu nahi duenak.
- Ikasketa akademiko gehigarriak sartu nahi dituenak.
- Ordezkoen araudiko, 5.3 artikuluaren b, c, d, e, f eta h ataletako egoera babestuan egon dena, bizitza laborala aurkeztu beharko du.

etxera

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Zer baloratuko da? Zer egiteko aukera duzu baremazio eta izen emate aldian?

- **Lan esperientzia puntuatu:**
- Haurreskolak Partzuergoan  egindako lan zerbitzua (egun 1= 0,01puntu)
- Kanpoko lan esperientzia (egun 1= 0,005puntua).

- **Ikasketa akademikoak.** Sarbide titulazioaz gain besteren bat baldin baduzu.

- **Zonalde eta jarduna aldatu.** Lan egin nahi duzun zonalde eta jarduna aukeratu beharko duzu.

- **Egoera babestuan egon bazara.** Ordezkoen araudian 5.5puntuan jasota dago.

- **Akats batengatik ez bazaizu lan kontratua indarrean sartu**. Lehentasun egoerara pasatu eta kontratua eman arte dagokizun puntuazioa eskuratzeko.

etxera

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

# Izena eman behar baduzu

- Izen ematea **Hezigunea** aplikazioan egin beharko da osotasunean:
  https://hezigunea.euskadi.eus/eu/

- Hezigunean erregistratuta ez bazaude, izena eman"Izen-ematea" estekan sartuta. Pasahitza jasoko duzu mugikorrean edo emailean.

  Erabiltzailea:NAN zenbakia letrarekin, izango da.

- Behin barruan: Eremu pertsonala barruan, izapideak langileen sailarekin **HAURRESKOLAK-ZERRENDA IREKIERA klikatu.**

etxera

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Izena eman behar baduzu

- **Online eskabidea**:

- **1. IDENTIFIKAZIO DATUAK:** Lehen erlaitz honetan, datu pertsonalak sartu behar dira.

Zinpeko aitorpena, pribatutasuna eta adin babesa dela , kontsulta egiteko baimenak eman ahalko dira.

Hezkuntza sailean egindako lana alegatu nahi bada, baimena eman , laukitxoa klikatuz.

Bai datu pertsonalak eta bai baimena erregistratzeko ; HURRENGOA sakatu behar da.

- **2. HEZITZAILEEN ZERRENDAK:** Atal honetan ordezkapenak zein zonaldetan eta zein jardunetan lan egin nahi duzun aukeratu dezakezu. SAKATU HURRENGOA.

- **3. PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA eta LAN ESPERIENTZIA**: Sakatu “berria” eta igo ezazu behar duzun dokumentazioa GUZTIA, “gorde” botoia sakatu.

**EZ SAKATU “ ESKABIDEA AMAITU ETA AGIRIA SORTU” PROZESU GUZTIA AMAITU ARTE**

.

# Dagoeneko zerrendetan bazaude

Izangaiaren fitxa izango duzu ikusgai. Aldaketak egin eta meritu berriak eta alegazioak (kanpoko lan esperientzia, egoera babestuak, akatsen zuzenketa…) egiteko aukera izango duzu. Norberaren fitxan dauden merituak ez dira berriz aurkeztu behar.

Aldaketa guztiak **https//hezigunea.euskadi.eus/eu** atarian.

**ADI!!** Erregistratuta ez bazaude, aurretik izena eman beharko duzu “Izen ematea” estekan sartuta.Eremu pertsonalean, izapideak langileen sailarekin **Haurreskolak- Hautagaiak klikatu.**
**Online eskabidea sakatu:**
* Datu pertsonalak eta ordezkapen aukerak aldatu .
* Meritu berriak sartu,plataforma bertatik alegatuko dira.




**ADIN TXIKIKOAREN BABESA,** sexu gaizkileen erregistro zentralean dauden datuak Hezkuntzak Sailak datuak kontsultatu ahal izateko baimena bete ez duenak, birbarematze prozesu honetan , baimena ematen duen edo ez adierazi beharko du.

etxera

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Lan esperientzia

1. Aldez aurretik baremotuta baduzu, bakarrik 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30a arte.

2. Ez baduzu inoiz baremantu edo tarte bat baremantzeko falta bazaizu, hasieratik 2025eko irailaren 30a arte.

## Ø Haurreskolak Partzuergoan:

- Kontratupean egondako **egun bakoitzeko 0,01 puntu (ofizioz** baremantzen da).
- Tarte osoan kontratupean egonez gero, 3,65 puntu guztira.
- Haurreskolak Partzuergoan Ikasturte bakoitzean kontratupean 165 egun baino gehiago egonez gero = 0,31 puntu gehigarriak. **OFIZIOZ**

## Ø Kanpoko esperientzia:

- Haur-hezkuntzako hezitzaile, Haur hezkuntzako irakasle edo haur hezkuntzako teknikari lanetan **0,005 puntu/eguneko. Publikoan zein pribatuan.**
- **Pribatuan: lan bizitza eta enpresa ziurtagiria zigiluarekin eta sinatuta aurkeztu behar dira.** Bertan bete duzun funtzioa azaldu behar da: **haur hezkuntzako irakaslea, haur hezkuntzako hezitzailea edo haur hezkuntzako teknikaria.**
- **Irakaskuntza pubblikoan:** Haur Hezkuntzako irakasle gisa egindako lana konsultatzeko, **hezigunean baimena eman ahalko diozu** Haurreskolak Partzuergoari, horretarako agertzen den **laukitxoan klikatuz**. Baimena ematen ez baduzu, zerbitzu orria sinatuta eta zigiluarekin eta lan bizitza aurkeztu beharko ditzu.

# Beste neurri onuragarri batzuk

**Irailaren 15tik aurrera,** indarrean jarri zen Haurreskolak Partzuergoan aldi baterako egon daitezkeen hezitzaileen beharrak eta ordezkapenak telematikoki betetzeko hautagaien kudeaketarako araudia berriaren arabera:

Jardunaldi laburra duten edo egunean bertan joateko kontratuek hurrengo neurri onuragarriak izango dituzte:

- Heren batean lan egindako hilabete bakoitzeko **0,033 puntu** gehiagorekin baremat uko dira. Kontratu hauek esklusibitateaz salbuetsita egongo dira, bateragarriak badira.

- Egunean bertan lanera joateko kontratuak hartuz gero**, 0,005 gehiago** kontratuko.

etxera

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Ikasketa akademikoak

**3.2.- Ikasketa-tituluak**

Zerrendetan izena eman ahal izateko aurkeztutako baldintza orokorrek, hau da, baldintza orokor bezala aurkeztutako titulu eta hizkuntza eskakizunaren ziurtagiriek ez dute puntuak lortzeko balio.

Hurrengo ikasketa tituluak baloratuko dira beti ere baldintza bezala zerrendan sartzeko aurkeztutako titulazioez apartekoak baldin badira, eta hurrengoko baremoarekin:

| | | |
|---|---|---|
| a) | Irakaslea Haur Hezkuntzan - Diplomatura | **1 puntu** |
| b) | Irakaslea Haur Hezkuntzan - Gradua | **1 puntu** |
| c) | Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria | **1 puntu** |
| d) | Haurtzaindegian espezializatutako teknikaria | **1 puntu** |
| e) | Gaikuntza Haur Hezkuntzan | **1 puntu** |
| f) | Psikologia – Lizentziatura / Gradua | **1 puntu** |
| g) | Pedagogia – Lizentziatura / Gradua | **1 puntu** |
| h) | Psiko-pedagogia Lizentziatura | **1 puntu** |
| i) | Irakasle Diplomaturetan beste espezialitateren bat | **0,5 puntu espezialitate bakoitzak** |
| j) | Irakaslea Lehen Hezkuntzan - Gradua | **0,5 puntu** |
| k) | Haur Hezkuntza edo eta Lehen Hezkuntzako minorrak eta aipamenak | **0,5 puntu minor edo aipamen bakoitza** |

**IRAKASLE DIPLOMATURAK**

1.- Atzerriko Hizkuntza
2.- Heziketa Berezia
3.- Heziketa Fisikoa
4.- Lehen hezkuntza
5.- Musika hezkuntza
6.- Entzumena eta Mintzaira

**MINORRAK**

1.- Haur Hezkuntza Tailerrak
2.- Euskara, hezkuntza tresna
3.- Atzerriko Hizkuntza
4.- Heziketa Berezia
5.- Berrikuntza Proiektua
6.- Adierazpena eta komunikazioa dramatizazioaren bidez
7.- Kulturartekotasuna
8.- Hizkuntzen trataera bateratua
9.- Irakurzaletasuna eta liburutegia
10.- Gorputz Hezkuntza
11.- Berrikuntza Haur Hezkuntzako Eskolan
12.- Musika Hezkuntza
13.- Hizkuntza Aniztasuna Eskolan



14.- Curriculuma eta Baliabideak
15.- Berrikuntza Lehen Hezkuntzako Eskolan

- Hezigunean, alegazioetan ikasketa akademiko gehigarriak. **Ziurtagiriak online igo beharko dira, banan banan.**
- Deialdiaren 3.2puntuan jasota dago (6.orria).

**Gehienez 3 puntu .**

EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Egoera babestuak

**Baremazio eta izen emate deialdiaren 3.1.a puntuan azaltzen dira egoerak.**

Araudiko 3.1.a1 **Ordezkoen araudiko 5.5. puntuan** jasota dauden egoera babestuak puntuatzeko, **bizitza laborala aurkeztu** behar da eta **egoera horretan** egondako epea. Hezigune atarian bitartez.

Araudiko 3.1.a2 egoeran egon bazara, **ofizioz** puntuatuko zaizu.

Araudiko 3.1.a3 egoeran egon bazara, **ofizioz** puntuatuko zaizu.

etxera

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Gogoratu

*Izen- ematea nahiz baremazio, birbaremazio prozesua online soilik izango da.* Hezigune ataritik, aplikazio bertatik egin beharko dira, beharrezko aldaketa guztiak, eta baita meritu berriak alegatu eta egiaztatu.

**Paperean egindako eskariak ez dira onartuko.**

**Informazio gehiago:**

http://www.haurreskolak.eus/lista_noticia?id_noticia=650




etxera

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Egutegia

| | |
|---|---|
| **2025/11/07** | Deialdia Haurreskolak Partzuergoko web orrialdean argitaratu |
| **2025/11/17- 2025/11/30 (biak barne)** | Norberaren fitxa ikusi eta datu pertsonalak zein ordezkapenerako aukerak aldatzea. |
| **2026/02/27** | Behin-behineko zerrenda argitaratu. |
| **2026/03/02-2026/03/13 (biak barne)** | Erreklamazioak aurkezteko epea. |
| **2026/05/15** | Behin-betiko zerrenda argitaratu. |
| **2026/05/16-2026/06/16** | Gorako helegiteak tarteratzeko epea. |
| **2026ko uztailaren bukaeran edo irailaren hasieran** | Gorako helegiteen ebazpena |

etxera

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Zure puntuazioa ikusteko aukera

www.haurreskolak.eus web orrian. Ezkerreko aldean INFORMAZIO OROKORRA sartu -> hezitzaileak.







etxera

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Zure puntuazioa desglosatua ikusteko

Zure lan esperientzia ikusteko «klik»atu azpimarratuta dagoen puntuazioan eta hor aterako da orain artean lortu duzun lan esperientzia. APG puntuan ere «klik»atuz apartatu horretan dagokizun puntuazioa ikusteko aukera izango duzu.

| E.G. | T.G. | I.Z. | A.P.G. | GUZ | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 39.860 | 0.000 | 0.500 | 0.000 | **40.360** | | | Ekialdea Osoa<br>Mendebaldea Osoa<br>Hegoaldea Osoa<br>Hegoaldea Partziala |
| 39.595 | 0.000 | 0.750 | 0.000 | **40.345** | | Ekialdea Osoa<br>Mendebaldea Osoa<br>Hegoaldea Osoa | |
| 39.785 | 0.000 | 0.500 | 0.000 | **40.285** | Iparraldea Osoa<br>Hegoaldea Osoa | Ekialdea Osoa<br>Mendebaldea Osoa<br>Hegoaldea Osoa | Ekialdea Osoa<br>Mendebaldea Osoa<br>Hegoaldea Osoa |

Laburduren esanahia:

B.Z.H.: Beste Zerbitzu batzuk Haurreskolak Partzuergoko zentroetan
Kot.: Haurreskolak Partzuergoko zentroetan 165 egun edo gehiago kotizatuak
E.H.: Lan esperientzia Haurreskolak Partzuergoko zentroetan
E.B.Z.: Lan esperientzia Beste Zentro batzuetan
E.G.: Lan esperientziagatiko puntuazioa Guztira

**B.Z.H:** 0.620 **Kot.:** 0.000 **E.H.:** 38.880 **E.B.Z.:** 0.285 **E.G.:** 39.785

etxera

LAB
EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Aparteko informazioa:

**Lan hitzarmena eta ordezkoen araudi berria:**

https://irakaskuntza.lab.eus/haurreskolak-partzuergoa-haurreskolak-partzuergo-publikoko-lan-hitzarmen-berria-2025eko-otsaila/

**GIDA SINDIKALA – Haurreskolak:**

https://irakaskuntza.lab.eus/gida-sindikala-lab-irakaskuntza/gida-sindikala-haurreskolak-0-3/gida-sindikala-haurreskolak/

**Baremazio deialdia:**

http://www.haurreskolak.eus/lista_noticia?id_noticia=650

etxera

LAB EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA

# Gurekin harremanetan jartzeko

## Gure kontaktuak

**ARABA**
689 686 207
haurreskolakaraba@lab.eus

**BIZKAIA**
666 770 982
haurreskolak.biz@lab.eus
666 771 196
i.belarrinaga@lab.eus

**GIPUZKOA**
674 094 543
haurreskolak.gip@lab.eus
666 775 484
haurreskolak.gip1@lab.eus

***JARRAI GAITZAZU!***

**Telegram**
LABHaurreskolak

**Facebook**
LAB Haurreskolak

**X sarea**
LAB Haurreskolak

etxera

EUSKAL SINDIKALISMO ERALDATZAILEA